

# **EIPSaren funtzionamendu- protokoloa**

**2016ko maiatza**

**AURKIBIDEA**

AURKIBIDEA	2
LANEAN HASI	3
Nor gara?	3
Nola konektatu	3
Zer egin konexioak huts egiten badu	4
IRAKURLEAK	4
MAILEGUAK / ITZULKETAK	4
Liburutegi arteko maileguak	5
Segurtasun-maileguak	5
OPAC	7
INPRIMAKIAK	8
ESTATISTIKAK	9
ERANSKINAK	10
1. eranskina: Nola jarri harremanetan Liburutegi Zerbitzuarekin	10

## LANEAN HASI

### Nor gara?

**EIPS** Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen siglak dira. Sare hori Euskadiko liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen bidez sortu zen, erabilera publiko orokorreko liburutegi zerbitzuen multzo antolatu modura.

EIPSek linean daukan katalogoa honako hauek osatzen dute: Euskadiko udal-liburutegien funts bibliografikoek, lege-gordailuaren bidez sartzen diren funts bibliografikoek eta EIPSen hitzarmen bidez sartu diren erabilera publiko orokorreko funtsek.

Katalogo hori Liburutegiak Kudeatzeko Sistema Integratu baten bidez kudeatzen da, **AbsysNet** izeneko aplikazioaren bidez. Gaur egun 2.0 bertsioarekin lan egiten ari gara.

Katalogoaren administrazioa Liburutegi Zerbitzuak egiten du, eta arkitektura informatikoari dagokion guztia Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EJIE) kudeatzen du.

### Nola konektatu

EIPS osatzen duten liburutegi guztiek liburutegi-zenbaki bat dute, eta sukurtsal bat edo gehiago, bakoitzaren beharren arabera. Horiek ere sukurtsal zenbaki bat dute ere. Liburutegi Zerbitzuko teknikariak arduratzen dira aplikazioa erabiliko duten liburutegiei eta erabiltzaileei alta emateaz.

Liburutegi bakoitzak langile berrien datuak bidali behar dizkio Zerbitzuari, horrek alta emateko beharrezko diren erabiltzaile profesional baimenen bidez.

Erabiltzaileei AbsysNet-en alta emateko beharrezkoa den informazioa:

Izena
Abizenak
NAN (letrarekin)
Liburutegia/Sukurtsala
Interfazea bistaratzeko hizkuntza (euskara / gaztelania)
Erabiltzailearen profila (katalogatzailea, liburuzaina eta abar)

Liburutegi Zerbitzuak erabiltzaile-izen bat emango die, aplikazioan sartu ahal izateko.

Ziurtagiri hori lortzeko izenpe txartelaren tramitazioa beharrezkoa izango da. Hori webaren bidez egin daiteke:

<http://www.izenpe.com>

AbsysNet-en erabiltzaile-izena eta izenpe ziurtagiria lortutakoan, programa erabiltzen has gaitzke.

Hau da AbsysNet-en erabiltzaile moduan sartzeko web-orria:

[www.katalogoak.euskadi.net/elsn](http://www.katalogoak.euskadi.net/elsn)

## Zer egin konexioak huts egiten badu

Eusko Jaurlaritzak Erabiltzailearen Laguntza Zentroa dauka (CAU); konexioak huts egiten badu, harekin jarri behar da harremanetan.

**Zuzenean bitartez Kulturako CAU (Erabiltzailearen Laguntza Zentroa) --- 945 016850 ---  
Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik-19:30etara**

Edozein zalantza izanez gero, Liburutegi Zerbitzuko langileekin jarri behar da harremanetan (ikus 1. eranskina: Nola jarri harremanetan Liburutegi Zerbitzuarekin).

## IRAKURLEAK

Irakurleen datu-basea bakarra da EIPS barruko liburutegi guztietarako. Irakurle bakoitza alta eman duen liburutegiari esleituta egongo da.

Erabiltzaileek formulario bat bete behar dute beren datu pertsonalekin. Formulario hori Liburutegi Zerbitzuak ematen du, eta OPACetik ere bete daiteke webaren bidez, norberak betetzeko inprimakia jarri baitute bertan. Liburutegiak behin betiko bildu eta gorde behar ditu formulario horiek; oso garrantzitsua da haiek kontserbatzea, irakurleen fitxategia datuen babeserako legearen eraginpean dagoelako<sup>1</sup>. Lege horrek ezarritako betebeharrak behar bezala betetzeko, hitzarmen bat sinatzen da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta liburutegiaren titularren (udalaren) artean.

Irakurle-zenbakia erabiltzailearen nortasun-agiria da, punturik, marratxorik eta amaierako letrarik gabe. Nortasun-agiririk gabeko haurren edo helduen kasuan, Absysnet-ek emango du irakurle-zenbakia.

## MAILEGUAK / ITZULKETAK

Mailegu-politika bera da EIPSto irakurle guztientzat, kasu bereziren bat izan ezik.

Erabiltzaileak gehenez ere 16 dokumentu atera ahal izango ditu maileguan, sareko liburutegietatik.

Monografiak maileguan edukitzeko epea 21 egunekoa da; eta material berezien kasuan zazpi egunekoa.

Maileguak berritu egin daitezke, betiere mailegatutako aleak beste erabiltzaile batzuentzat erreserbatuta ez badaude.

Mailegu-epea betetzen ez duten eta alea berandu itzultzen duten erabiltzaileei zehapena ezarriko zaie: egun bat ezer hartu ahal izan gabe, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzeko. Zehapena EIPSto liburutegi guztietarako izango da.

<sup>1</sup> 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa.

### Liburutegi arteko maileguak

Liburutegi arteko mailegua (LAM) administrazio beraren mende ez dauden liburutegien artekoa da. Hortaz, aurreko baldintza horrek erabakitzen du EIPSk liburutegien arteko maileguak liburutegi artekoak izatea, eta ez sare baten barruan (EIPSn, adibidez) egoteak.

Liburutegi arteko mailegu-zerbitzua EIPSk linean daukan katalogoaren bidez eskaintzen da, eta, prozedura horren bidez, EIPSk liburutegiek beren funts edo bildumetakoak ez diren jatorrizko dokumentuak jartzen dizkie eskura sarean izena emanda dauden erabiltzaile guztiei.

Liburutegi arteko maileguak liburutegien bildumak osatzeko aukera ematen du, baina ez ditu ordeztzen. Horregatik, eta ahalegin ekonomiko eta kudeaketa-lan handia eskatzen duelako, hura zentzuz erabiltzen ahalegindu behar da.

EIPSt atxikitako liburutegi guztiek liburu arteko mailegu-zerbitzua emateko eta zerbitzu hori sarean izena emanda duten erabiltzaile guztiei eskaintzeko konpromisoa dute.

Liburutegi arteko maileguak ez dakarkie inolako gasturik EIPSk liburutegiei, ez eta erabiltzaileei ere, kostua Eusko Jaurlaritzak hartzen baitu bere gain. Dokumentuak mezularitza-enpresa komun baten bidez bidaliko dira, Liburutegi Zerbitzuak aurrez erabakitako ibilbide eta jasotze/emate-daten arabera.


### Segurtasun-maileguak

AbsysNet web-aplikazio bat denez gero, batzuetan konexioak huts egiten du, sare-arazoengatik, zerbitzariak ez dutelako funtzionatzen, eta abar.


Horrelakoetan, hona deitu behar da: **CAU 945 016850**.

Matxura konpontzen ez den bitartean, “Segurtasun-mailegua PCan” delakoaren bidez lan egiteko aukera dago. Programa hori Liburutegi Zerbitzuaren web-orritik deskargatu daiteke. Programa horren bidez, aleen eta irakurleen barra-kodeak irakur daitezke.

<http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-lz/es>




The screenshot shows the website interface for the Euskadiko Irakurketa Publikoaren Sarearen on line sarearen dokumentazioa. The page includes a navigation menu with options like 'Hasiara', 'Kontaktua', 'Laguntza', 'Mapa', 'Erabilerraztasuna', and 'Egoitza elektronikoa'. The main content area is titled 'Euskadiko Irakurketa Publikoaren Sarearen on line sarearen dokumentazioa' and lists various resources such as 'Katalogo eskuliburuak', 'Beste prozedurak', 'Softwarea deskargatzea', and 'SZDA eskubideak'. The 'Softwarea deskargatzea' section is expanded, showing two software packages: 'Software: Absysneten barra-kodeak inprimatzeko letra-tipoak' and 'Software: Segurtasun-maileguaren programa'. Each software package includes installation instructions and a 'Deskargatzea' link with a file size (28 kB and 105 kB respectively).



**Software: Segurtasun-maileguaren programa**  
**Instalazioa:**

1. Fitxategia PCan deskargatzea
2. C:\ unitatean **Absysnet** izeneko direktorioa sortu
3. Direktorioan deskargatutako fitxategia deskonprimitu
4. Programa erabiltzeko **C:\absysnet\Bin\absysNET.exe** exekutatu

**Deskargatzea**  (zip, 105 kB)

## OPAC

OPAC (*Online Public Access Catalog*) EIPSkO liburutegiek linean daukaten katalogoa da. Helbide honetan dago:

<http://www.katalogoak.euskadi.net/katalogobateratua>

OPACen bidez erabil daitezkeen zerbitzuak:

- Sareko liburutegietako katalogoak kontsultatzea.
- Zure maileguen egoera zein den jakitea, eta berritzea, hala nahi izanez gero.
- Aleak eskatzea edo erreserbak egitea.
- Zure liburutegiarekin komunikatzea, erosketa-iradokizunak —desiderata izenekoak— edo bestelako iradokizun orokorrak egiteko.
- Gehien interesatzen zaizkizun gaietarako bibliografiak egitea.
- Gehien interesatzen zaizkizun web-esteken zerrendak egitea.



The screenshot shows the OPAC website interface. At the top, there is a blue header with the Euskadi logo and the text "Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea" and "Red de Lectura Pública de Euskadi". On the right, there is a search bar with fields for "Karnela / e-mail elektronikoa" and "Klabea", and a "Konektatu" button. Below the header, there is a navigation bar with "Deskonektatu" and "Laguntza" links, and language options for "Castellano", "Français", and "English". The main content area features a search bar with a "Bilatu" button and a dropdown menu for "Katalogo orokorra". Below the search bar, there are four blue buttons: "Eskurapen berriak", "Hemeroteka", "Bibliografia Nazionala", and "Ondare bibliografikoa". To the right, there is a sidebar with social media links for Facebook, Twitter, and LinkedIn, and a "Lotura interesgarriak" section with a list of links. At the bottom, there are logos for "Liburutegiak", "liburuklik", "eLiburutegia", and "BIBLINEA".

## INPRIMAKIAK

Liburutegi-lanerako beharrezko diren inprimakiak (txaplatak, txartelak, etab.) berdinak dira EIPSkoliburutegi guztietan. Informatikariak arduratzen dira liburutegi bakoitzeko inprimagailuak eta produktu-eredu zehatz bakoitza parametrizatzeaz.

EIPSkoliburutegiek dagokien lurralde-ordezkaritzetara deitu beharko dute etiketak (barra-kodeak eta txaplatak) eta agiriak lortzeko (ikus 1. eranskina: *Nola jarri harremanetan Liburutegi Zerbitzuarekin*).

Liburutegi Zerbitzuak ematen duen materiala:

L-1	Liburua itzultzeko data jartzeko txartela	Tarjeta de fecha de devolución del libro
L-2	Liburuaren txartela horia	Tarjeta de identificación del libro amarilla
L-3	Irakurlearen mailegu txartel urdina	Tarjeta de préstamo del lector azul
L-5	Liburua ateraezina delaren txartela	Tarjeta de exclusión de préstamo
L-11	Mailegu txartelen poltsak	Bolsas fichas préstamo
L-24	Inprimagailurako etiketak (barra kodea)	Etiquetas para impresora (código de barras)
L-25	Inprimagailurako etiketak (txaplatak)	Etiquetas para impresora (tejuelos)
L-26	AbsysNet irakurle-txartela	AbsysNet Carné de lector
L-27	Inprimagailurako etiketak (txaplatak CDak, disketeak)	Etiquetas para impresora (tejuelos cd's, disquetes)
L-28	Irakurle txartelaren eskabide-orria elebiduna	Hoja de solicitud carné de lector bilingüe
L-29	Hoja de solicitud carné de lector euskera	Irakurle txartelaren eskabide-orria euskaraz



## ESTATISTIKAK

Liburutegi Zerbitzuak Kultura Ministerioarekin batera lan egiten du “*Espaniako Liburutegi Publikoen Zenbakiak*” egiteko. Urtero, EIPSkok liburutegi guztiei buruzko datu estatistikoak biltzen dira, ALZIRA datu-basean sartzeko eta autonomia-erkidego guztietako estatistika-txostenetan tratatzeko.

Informazio gehiago:

<http://www.mecd.gob.es/cultura-mecd/areas-cultura/bibliotecas/mc/ebp/portada.html>

## ERANSKINAK

### 1. eranskina: Nola jarri harremanetan Liburutegi Zerbitzuarekin

<b>Zerbitzu burua</b>	Francisca Pulgar	945019474	f-pulgar@euskadi.eus
<b>Sarearen funtzionamendua, estatistikak eta Liburutegi arteko Mailegua</b>	Patricia Acebes	945019525	p-acebes@euskadi.eus
<b>Katalogazioa</b>	Lola Martinez	945019473	md-martinez@euskadi.eus
<b>Irakurketa-klubak eta Autoritateak</b>	Unai Cuevas	945019471	u-cuevas@euskadi.eus

#### Materiala

<b>Araba</b>		945019524	liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus
<b>Bizkaia</b>		944031650	kultura.bizkaia@euskadi.eus
<b>Gipuzkoa</b>		943022964	kultura.gipuzkoa@euskadi.eus

#### Diru-laguntzak

<b>Irakurketa sustatu</b>	Unai Cuevas	945019471	u-cuevas@euskadi.eus
<b>Funts bibliografikoak</b>	Mikel Arenaza	945019471	m-arenaza@euskadi.eus
<b>Teknologia berriak</b>	Mirari Izaguirre	945018117	m-izaguirre@euskadi.eus
<b>Gainerako laguntza teknikoa (zalantzak, autoritateekin zerikusia duten gaiak, katalogatzaileen altak, etab.):</b>			liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus
<b>Arazo teknikoak (CAU):</b>		945016850	